

Mondragon Unibertsitatea NUMISHEET2016 kongresuan

2016/09/16

Pasa den astean, estanpazioaren simulazio aurreratuari buruzko NUMISHEET 2016 Conference-aren 10. edizioa egin zen Bristol (Erresuma Batua). NUMISHEET 2016 elkarlanean antolatzen dute Londreseko Brunel University-k (Erresuma Batua), Swansea University-k (Erresuma Batua), Portoko FEUP Unibertsitateak (Portugal) eta University of the West of England (Erresuma Batua).

Kongresura Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Materialen Konformazio Prozesu Aurreratuen taldeko bi kide joan ziren. Honako hitzaldi hauetan parte hartu zuten:

Titulua: Accurate drawbead modeling in stamping simulations

- **Egileak:** M. Sester, I. Burchitz, F. Estalayo eta E. Saenz de Argandoña.
- **Enpresak:** AUTOFORM, EPS-MU eta MATRICI

Titulua: Sensitivity analysis on the AC600 aluminum skin component

- **Egileak:** J. Mendiguren, J. Agirre, E. Mugarra, L. Galdos eta E. Saenz de Argandoña.
- **Enpresak:** EPS-MU

Titulua: Roll levelling semi-analytical model for process optimization

- **Egileak:** E. Silvestre, D. Garcia, L. Galdos, E. Sanz de Argandoña and J. Mendiguren
- **Enpresak:** EPS-MU, FAGOR-ARRASATE

Irudian ezkerretik eskuinera: Lander Galdos doktorea(EPS-MU); Fernando Rastelini doktorea (STAMPAK QUANTECH); Joseba Mendiguren doktorea (EPS-MU)

